

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzeko hornitzaile eta bazkide sarea da. Hau da, bazkideekin lana egitea aldatuta positiboa eta handia eragin dezake gure enpresan. Aliantzak sortzeko arrazoiak guztiz onak dira: Lehenik, negozio-eredua optimizatzen du, hau da, kostuak murriztea lortu ondoren, azpikontratatzera edo azpiegituak konpartitzera eramaten gaitu.

Gainera, arriskuak murrizten ditu, hau da, galerak izateko edo enpresak porrot egiteko dagoen arriskua murrizten ditu.

Azkenik, baliabideak eskuratzeko aukera. Esaterako, baliabide espezifikoa, ezagutza, lizentziak eta bezero berriak lortzeko aliatzen gara.

Horregatik, kontuan izanda sortuko dugun enpresa telebista katea dela eta ezagutu behar gaituztela gure helburuak lortzeko, Decathlonekin aliatu gara.



Gure enpresa Decathlonekin aliatzen denean, bazkideekin lana egiteak eragin handia eta positiboa izango du enpresarengan.

Decathlon enpresa famatua denez, gure enpresa ezagutzera eramango du, hainbat gauza eginez.

Dirua lortzeko, GAKM markako arropa egingo dugu saltzeko. Hortaz, Decathlonek sekzio bat sortuko du GAKM izenarekin, eta bertan, gure arropa salduko da diru gehiago irabaziz eta arropa kantitate gehiago salduz. Horrela, gure enpresa gehiago ezagutuko da.

Baita ere, Decathlonen iragarkietan gure enpresa aterako da. Beraz, oraindik gehiago ezagutuko da gure enpresa, baita katea ere.

Hori dela eta, arriskuak sahiestuko dira, hau da, gure enpresak edo kateak porrot egiteko probabilitatea asko gutxituko da eta galerak murriztuko dira, agian arrakastatsua egitera iritsiko da munduan zehar.

Horrez gain,
baliabideak
eskuratzeko aukera
izango dugu, esan



dugun bezala, ezagutza handituko da, baina baita lizentziak eta bezeroen kopurua ere. Gehiago ezagutzean, bezero berri gehiago izango ditugu, bai kateko telesailak ikusten eta bai gure jardueratan parte hartzen, adibidez, guk egindako arropa erosten.

Bukatzeko, negozio-eredua optimizatuko du, hau da, kostuak murriztu egingo dira eta azpikontratatzera edo azpiegituak konpartitzera eramango gaitu.